



MARIO ZAPATA
SOZIOLOGOA, SOZIOLINGUISTIKA
ETA MIGRAZIO GAETAN ADITUA

MIGRATZAILEEN HARRERA LINGUISTIKOA

Honako galdera hau genuen abiapuntu: «Immigranteen gizarteratze prozesuaren ezaugarriak, hizkuntzaren aldetik. Nola eta zein baldintzetan euskaldunduko dira immigranteak?». Gure ekarpena gizarteratze prozesu delako horren esparru zehatz batekin lotu dut: harrera linguistikorekin.

Ekarpen honek azken urteotan egindako lanak ditu oinarri, besteak beste, Soziolinguistika Klusterrak 2016an saritutako lana. Sarituriko lan hori, berez, BAT aldizkarian argitaratu zen (Zapata 2017), baina hor aurkezturikoa ikerketa akademiko sakon baten zati bat besterik ez da. Horrexegatik, ikerketa hura oinarri harturik, aurretik argitaraturiko artikulutik harago doa testu hau eta hemen jasotako elementu nagusiak ez dira aipaturiko artikuluan agertzen. Izan ere, artikulua hura administrazioz kanpoko harrera-eragileen jardueran jarri zuen arreta, eta honetan elementu orokorrei erreparatuko diegu bereziki.

Artikulu honetan jasoko diren aipuak, hain zuzen ere, aipatu berri dugun ikerketa kualitatibo horretatik atera ditugu, egindako hogeita bi elkarrizketa sakonetan jasotako testigantzetatik.

ABIAPUNTUA ETA MARKOA

Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak antolaturiko jardunaldiaren izenburua bera ikuspegi berri baten beharraz mintzo zen eta, hain zuzen ere, horrekin loturik dago gure ekarpenak mahai gainean jarritako abiapuntua: marko teorikoaren definizioan berezko ikuspegiaren beharra.

Hori, zehazki, ondoko bi elementuekin lotzen dut: aniztasun etnokulturalaren begirada eta estaturik gabeko komunitateen berezko ikuspegiarekin.

Aniztasun etnokulturalaren begiradari dagokionez, gure ustez, immigrazioaren ikuspegia motz gelditzen zaigu fenomeno hau kudeatzeko. Batetik, subjektuaren definizioan immigrante kategoriak edo etiketak, nolabaiteko iraugitze data duelako. Bigarrenik, immigrazioaren eremu kontzeptualetik kanpo gelditzen delako, migratzaileen seme-alaben errealitatea. Azken horietako asko, berez, ez dira migratzaileak, baina familiako errealitate etnokultural bati loturik daude eta haien identitate etnokulturalan hori ere presente dago.

Beste alde batetik, ikuspegi berri hori estaturik gabeko komunitate etnokulturalen berezko begiradarekin lotzen dut. Izan ere, aniztasun etnokulturalaren kudeaketaren inguruan dauden eredu teorikoen balioa ukatu gabe, estaturik gabeko nazio eta/edo komunitate etnokulturalen ikuspuntutik berez eredu teoriko propioa erabiltzeko beharra ikusten dut. Izan ere, hau agerian gelditzen da, nabarmen, euskararen biziberritzearen ikuspuntua aintzat hartzen denean.

Adibide praktiko gisa, mahai gainean jarriko dugu John Berryk kulturalizazio ereduez egin zuen definizioa, (integrazioa, asimilazioa eta abar). Definizio hori, esaterako, erabat distorsionatzen da helmugako herrialdean bi kultura eta bi hizkuntza daudenean, gurean bezala, bertako berezko hizkuntza gutxiagotutakoa delarik.

Izan ere, gure abiapuntuzko hipotesiaren arabera, gutxiagotutako hizkuntza ikasteak bertakoa izatearen sentimendu argiagoa ekartzen du (norberaren zein besteen pertzepzioan), hizkuntza nagusia ikasteak baino. Gurean, esaterako, integratuak sentitzeko, euskarari garrantzia ematen diote batzuek: "zure haurra doa... euskara ikasten dute edo oso kanpo gelditu daitezke eta zu ere bai." [A2-G-Eu].

Alabaina, integrazio/inklusio terminoetan, eremu euskaldunagoetan ere, euskara ikasi gabe jendea integratua senti daitekeela ikusten da: "bizi ahal zara lasai asko eta guztiz integratuta baita euskaldunen artean, eta zurekin gaztelaniaz egiten dute". [E3-G-Eu].


Atal honekin bukatzeko, azken nabardura. Hizkuntzekin loturiko elementuak aztertzen ditugunean, elkarrekiko aitortzaren printzipioa oinarri, bi norabideetako begirada erabili dugu: euskararen zein harrera eskatzaileen jatorrizko hizkuntzen trataera aztertu dugu. Ikuspegi integratzailea, esan dezagun, baina dis-simetria kolokan jarri gabe, hau da, euskarak, gutxiagoturiko hizkuntza bezala, biziberritze prozesua garatzeko lehenasunezko trataera behar duela baztertu gabe.

MIGRAZIOA ETA EUSKARA: BEGIRADA HISTORIKOA

Jardunaldiaren helburuen artean, immigrazioaren fenomenoak euskararen biziberritze prozesuan izaten ahal duen eragina aipatzen zen. Migrazio prozesuek hainbatetan zailtasunak ekartzen dituzte gutxiagotutako hizkuntzen biziberritze prozesuetan. Ermua, esaterako, 1.677 biztanleko herri txikia zen 1950an; 20 urteren buruan, bere populazioa ia hamar aldiz handitu zen (14.651). Horrelako aldaketa demografiko batek, nahitaez, ondorio nabarmenak ditu maila sozialean, kulturean zein linguistikoan.

Migratzaileen gizarteratze prozesua eta euskalduntzearen arteko dialektikari dagokionez, begirada historikoak ere ekarpen batzuk ekartzen dizkigu, hain zuzen ere, XX. mendeko 60. eta 70. hamarkadetako immigrazioarekin gertatutakoa ikusteko. Lagin bezala, EAEko populazioaren hizkuntza gaitasunaren inguruko datuak aztertzen baditugu, jatorriaren aldagaia oinarritzat harturik, honako hau ikusten dugu 1986, 1991 eta 1996ko zentsuetako datuetan: EAEtik eta NFKtik kanpo jaiotakoaren artean, euskara zekiteneen kopurua % 2 edo % 3 besterik ez zen.

Eta beraien seme-alabek euskara ikasi dute? Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 1983an egindako *Euskararen borroka* ikerketan, datu adierazgarriak agertzen ziren: guraso biak Euskal Herritik kanpo sortutakoak zituztenen artean, soilik % 6k *Ongi* edo *Nahiko Ongi* egiten zuen. Berriz, guraso biak bertan jaiotakoak zirenean % 48k *Ongi* edo *Nahiko Ongi* egiten zuen. Bestetik, 80.



hermes



hermes

hamarkadan A ereduaren indarra oso handia zen (baita 90. hamarkadan ere) eta gure hipotesia da guraso biak Euskal Herritik kanpokoak zituzten horietako askok eredu horretan ikasi zutela. Izan ere, 2005ean Gasteizen egindako ikerketa kuantitativo batean, A eredu hau hautatzen zuten amen profila hau zen: Arabarra edo EAEkoa zenean % 16, Estatuko beste lurraldeetakoak zenean %30 eta Estatuz kanpokoak zenean % 50 inguru (Zapata 2011: 126).

KOKAPENA: MIGRAZIO PROZESUAK

Migrazio prozesuetan fase ezberdinak bereizten dira. Ohikoena hiru fase bereiztea dugu: aurre-migrazioa, migrazioa eta migrazio ondokoa. Hala ere, prozesu konplexua da eta ez da beti homogeneoa, migratzaile guztien baldintzak ez direlako berdinak.

Migratzaileen abiapuntuzko baldintzak eta migrazio prozesua, hein handi batean, jatorrizko zein helmugako herrialdeen egiturazko faktoreekin loturik ere agertzen dira: ekonomikoak, politikoak, soziokulturalak.

Faktore soziokulturalen artean, hainbat gaietan, joera ezberdinak ikusten dira jatorrien arabera, esaterako, migrazio-proiektuan: “Kolonbiako jende gehienak ziur aski umeak ekarriko dituzte honera [...] Nikaraguako kasuan [...] oso gutxi ekartzen dituzte honera”. [A5-G-Er].

Faktore politiko-administratiiboak ere agertzen dira, gobernuek, definitzen dituzten immigrazio politiken arabera horretan eragiten dutelako: “Han estado trabajando en Francia o en Italia, que [...] se puso duro con la inmigración hace dos años y se vinieron para acá”. [AE1-N-Er]. Alabaina, politika horiek estatu-nazioen eskuetan gelditzen ohi dira betiere.

Aurre-migrazio fasea, helmuga duten herrialdera iritsi arte, kasu batzuetan, oso gogorra izan daiteke. Baina helmugara iritsi eta gero, oro har, lehenengo garaia ere konplexua izanen da: prozesu administratiiboak, ziurtasun-eza, lan egoera prekarioa eta, maiz, estutasun ekonomikoak. Batzuk, denbora pasa ahala, egoera sozioekonomikoa hobetzea lortzen dute eta beste batzuk ez.

Eusten diotenen artean, migrazio prozesu horren fase bat, familia berrelkartzea izan daiteke, familia atzean utzi dutenen kasuan: “Ume hori etortzen da 15 urterekin [...] 4 edo 5 urtetan ez da egon amarekin [...] eta inkorporatzen (sic) da hona”. [A2-G-Eu]. Seme-alabentzat, kasu askotan, prozesu gogorra eta gatazkatsua da, eta maiz agertzen den ideia da honakoa: migratzeko erabakia gurasoena da, ez beraiena.

Itzuleraren ideia edo mitoa ere oso presente dago migrazio-prozesuan. Izan ere, hainbat ikerketetan azaldu denez, migratzaile askoren hasierako asmoa epe labur edo ertain batean itzultzea da. Kasu askotan, asmo hori ez da betetzen, baina uste horrek egokitzapen prozesua baldintzatzen ahal du:

“En general, vienen con la idea de no quedarse, y (...) cuando vienen con esa idea tienen muy pocas ganas de pensar en el futuro próximo. Pero se quedan y no hacen planes, no asesoran bien su vida, ni la educación de sus niños, y eso produce muchos problemas”. [AE8-A-Er].

Horretan ere, proiektuaren inguruan ezberdintasunak egon daitezke komunitatearen arabera: “yo creo que la mayoría de la gente [Bulgariakoak] no viene para quedarse. [...] Los búlgaros que hemos comprado casa aquí seremos muy pocos”. [AE3-N-Er].

Azkenik, migrazio prozesuak oso dinamikoak dira. Ikuspuntu geografikotik, oro har jendea toki batetik bestera mugitzen da, lan eta bizi baldintza onenen bila presente dago: “yo vengo por el tema puntual trabajo y al final, no sé si hoy voy a estar en otra comunidad”. [A5-G-Er]. Horrek eragina badu hizkuntzen inguruan hartzen diren erabaketan: “con el tema de trabajo de mi marido, me he recorrido Cataluña, [...] Valencia [...] y ahora el País Vasco. [...] al final voy a escoger un modelo en castellano, porque no sé a dónde vamos a parar”. [A5-G-Er].

HARRERA ETA HARRERA-SAREAK

Harrera, berez, migrazio fasearekin loturik dago, migrazioa gauzatu ahala nola edo halako harrera elementuak ematen direlako, bereziki hasierako garaian. Migratzaileak, eragile askoren eta ezberdinen eskutik jaso dezake harrerarekin lotzen dugun informazioa eta laguntza: ezagutzen edo ezagutu dituen norbanakoak batetik eta, bestetik, mota guztietako eragile egituratuak. Kontzeptualki, *harrera informala* eta *harrera formala* gisa izendatu ditugu.

Harrera informala jatorrizko herrikide eta lagunaren harreman-sareekin lotzen dugu. Harrera formala, nolabait egituratuak dauden eragileekin lotzen dugu (administrazioak zein administrazioz kanpokoak).

Esku-hartzearen ikuspuntutik, sare informalean eragitea oso zaila da, komunikazio orokor elementuen bidez, zehazki lokalizatuak ez ditugun norbanakoen-gana iritsi beharko genukeelako. Sare formalen kasuan, berriz, eragileak zehaztuak daude eta aukera gehiago daude eragiteko, kasu honetan, harrera linguistikoa kudeatzeko.

SARE INFORMALA

Harrera informala bereziki jatorrizko herrikide eta lagunaren sorturiko harreman-sareetan gertatzen da.

Askok iritsi aurretik kontakturen bat badute eta, kontakturik ez dutenen artean, batzuek halako laguntza bilatzen dute herrikideen aldetik edo: “Cuando viene alguna persona de fuera, lo primero que va a buscar es un lugar de encuentro donde se encuentra más gente, la mayoría de la gente, de su nacionalidad”. [AE8·A·Er].

Sare informal horretan, hasieran bederen, harreman horizontal gutxi izaten dira bertoko pertsonekin: “para que una persona extranjera cree una red social con personas de aquí, hacen falta muchos, muchos años”. [A3·B·Er]. “[...] las vidas están paralelas (...) no hay puntos de convergencia”. [AE5·A·Er]. Euskararen gaiaren ikuspuntutik, sare informalearen osaerak baldintzatuko du euskararen inguruan jasoko duena eta/edo jasoko ez duena.

Esaterako, hizkuntza-ereduei dagokienez, lagunak edo jatorrizko herrikideek batzuetan eredu edo bidea ematen diete etorri berriei, seme-alaben matrikulazioan. Horrelako ildo bat aldatzea zaila izan daiteke, kanpoko faktoreek eragiten ez badute. Gasteizen bizi den Paraguaiako komunitateak tinko eusten dio jatorrizko hizkuntzari, guaranierari, baina gehienek seme-alabak A ereduan matrikulatzen dituzte: “Casi todos los paraguayos, nuestros descendientes están en la clase A, el de castellano”. [AE4·A·Er].

Askok, iritsi aurretik, kontaktuak dituzte eta jasotako informazioak migrazio prozesuaren norabidean eragiten ahal du. Esaterako, batzuentzat egoera soziolinguistikoaren inguruko aurre-informazioa helmuga hautatzeko faktore bat izan daiteke: “[...] llegaron una gente de Barcelona a ver si hay la posibilidad de trabajo acá. (...) ‘es que no entiendo...’. ‘está en euskara’ le decía yo, ‘pero eso ¿no exigen?’, ‘no, aquí no te exigen, aquí es opcional’”. [AE1·N·Er].

SARE FORMALA

Harrera formala, berriz, administrazioaren zein gizarte eragileek antolatutako sareekin lotzen dugu.

Administrazioa esaten dugu, baina administrazioen atal asko loturik egon daitezke harrerarekin, hala nola: udal zerbitzu orokorrak (errolda); gizarte zerbitzuak; Lanbide eta INEM; Osasun Zerbitzuak; hezkuntza atalak (eskolak, Eskolatzeko Batzordeak) eta Euskara Zerbitzuak. Hauei dagokienez, maila ezberdineko administrazioak ere baditugu: tokian tokikoak, herrialde eta erkidego mailakoak eta estatukoak ere.



hermes





hermes



Administrazioz kanpoko eragile sozialen atalean, aurretik egindako lanetan (Zapata 2013) agerian jarri dugu sare honen garrantzia kuantitatiboan zein kualitatiboan. Izan ere, Euskal Herri mailan migratzaileen harrerarekin nola edo hala loturiko eragileen kopurua oso handia da (2013an, 1.000 inguru eragile). Hartan definitutako sailkapenaren ildotik, nagusiki honako hauek bereizi ditugu: urgazpeneko eragileak, sindikatuak, aniztasun etnokulturalaren inguruan osaturiko elkarteak (bereziki: migratzaile elkarteak eta erlijio elkarteak), hezkuntzako eragile sozialak eta euskalgintzako eragileak.

Harrera formala, oro har, definituriko zirkuitu moduko batzuetan eskaintzen da (hara jo behar da, harrera jasotzeko. Alabaina ezin dugu bistatik galdu migratzaile guztiak ez direla zirkuitu horietatik igarotzen edo oso modu mugatu batean pasatu soilik. Horrexegatik, hain zuzen ere, garrantzitsua da harreraren inguruko jarrera proaktiboagoa izatea (administrazioaren aldetik, bereziki), berez ohiko zirkuituetara hurbiltzen ez direnengana iristeko.

INFORMALA VS FORMALA

Bi harrera bide horiek, batzuetan, osagarriak izan daitezke: “Yo creo que tienen mucho peso las redes familiares y de amistad, pero siempre vienen a contrastar la información aquí”. [A6·N·Er].

Bestetan, baina, bide batetik eta bestetik jasotakoek talka egin dezakete. Kasu horietan, zer? Sare informalek pisu handia dute migrazio prozesuaren lehenengo urratsetan; batzuetan hor dira iristean hasierako laguntza eman dieten pertsonak eta haiekiko halako leialtasun sentimendua ere egon daiteke: “azkenean, garrantzi handia dauka, lagundu dizun horrek, berarekin bazaude... edo familia”.

Bestetik, bi eragile mota horien artean harremanak daude. Batzuetan, administrazioak zeregin batzuk besteen esku utzi ditu eta bestetan, eragile sozialek administrazioen hutsuneak betetzen dituzte. Ideialena, beraien arteko osagarritasuna egotea litzateke, baina batzuetan, nolabaiteko lehia edo tentsioa antzematen da.

HARRERAREN DIMENTSIOAK

Harrera ulertzeko eta gauzatzeko ez dago bide bakarra. Askotan, harrera administrazioko gizarte zerbitzuetan planteatzen den ohiko formatuarekin lotzen da, *gizarte-ekintza* delakoarekin. Baina harrera hortik harago doa. Harrerak dimentsio ezberdinak hartu beharko litzuzke: administratibo-legala, sozio-laborala, psikosoziala-emozionala, soziokulturala eta abar.

Harrera integralaren goraipamena egiten da, baina inork ez du horrelakorik eskaintzen. Administrazioa horretarako baliabide gehien duen eragilea izanik ere, nekez bete ahal ditu batera dimentsio guzti-guztiak. Izan ere, aipatu bezala, administrazioak atal ezberdinen bidez eskaintzen du harrera, modu deszentralizatu batean (atal ezberdinen bidez: gizarte zerbitzua, lan zerbitzua eta abar).

Hori horrela, eragile sozial batzuek osagarritasunaren ideia mahai gainean jartzen dute, beraien mugak gainditzeko eta ahalik eta esparru gehien hartzeko. Esaterako, asistentziaren esparruan aritzen diren eragile batzuk, larrialdiko harrera eta zerbitzuak eskaintzen dituzte: janaria, erregularizazio administratiboa, lana... Urgentziatzko lan horiek jorrazteko lehenetsunetik eta batzuetan ezintasunetik, beste eragile batzuekin elkarlanean aritzeko aukera plazaratzen dute: “lo que hacíamos [...] era dirigir a los padres y madres a *Denon Eskola* [que] tenía un programa [...] dirigido precisamente a hijos e hijas de inmigrantes para conocer los modelos”. [A1·A·Er].

Honako hau azpimarratu behar da: asistentzia esparruko eragile horiengana jotzen duten pertsonen egoera, oro har, oso prekarioa da, eta, kasu horietan, eragile horientzat ez da erraza harreraren elementu kultural eta linguistikoak sartzea: “era tan brutal la situación en que se encontraba la gente que poco a poco dejamos de informar [euskararen inguruan]”. [A3·B·Er].

Halaber, eremu honetan lanean hasi ziren euskalgintzako eragile gehienek jarduera, hutsune bat betetzeko sortzen da, harrera dinamikan hizkuntza eta kultura txertatzeko: “kezka zen udalerrri euskaldunetan, bada, ez zegoela hizkuntzaren ikuspuntutik harrera planik beste jatorri batzuetako herritarrei harrera egiteko orduan”. [E1·G·Eu].

Aurrekoa egiteko ere, beharrezkoa da oinarritzko ikuspegi multidimentsionala izatea. Esan nahi baita, bakoitzak dimentsio bat edo batzuk jorratzen baditu ere, gainerakoak aintzat hartu behar ditu. Esaterako, harrera administratibo-legala edo sozio-laborala eskaintzen dituen eragileak, elementu psikosozial-emozional edo soziokultural batzuk aintzat hartu beharko lituzke (adibidez, zein da bere jatorrizko kultura eta hizkuntza). Halaber, harrera linguistikoa eskaintzen duen eragileak, esaterako, harrera-eskatzailen egoera sozioekonomiko edo legalen inguruko informazioa izatea.

BI NORABIDETAKO BEGIRADA: ANIZTASUN LINGUISTIKOAREN AITORPENA

Hasieran, teoriarekin lotu dugu elkarren arteko aitortpenaren printzipioa, baina metodologian ere ikuspegi hori erabili dugu eta euskararen egoerari begiratzeaz gain, aniztasun linguistikoa exogenoa ere aztertu dugu. Ikuspegi bikoitz -edo aniz-hori agertuko da ondoko ataletan: egoeraren analisia egitean, baita harreraren nondik norakoa duen harreraren nola tratatzen den aztertzean ere.

Estereotipo bat ere mahai gainean jarri behar dugu. Izan ere, maiz halako inferentzia egin izan da: jatorrizko hizkuntza gutxiagotua duten komunitateek, halako sentsibilitatea izan beharko dutela hemengo egoeraz. Aurretik ikusi dugun bezala, garrantzirik irmoki eusten dioten Paraguaiko komunitateen jokabideak ez du euskararen aldeko konpromisorik erakusten (Gasteizen, haurrak modu orokortu batean, A ereduan matrikulatzen dituztela).

Baina, elkarren aitortpena nolabaiteko printzipio etikoa dugu, aniztasun etnokulturalaren onarpenarekin loturik.

TESTUINGURU SOZILINGUISTIKOA

Euskararen egoera orokorraren inguruan ez gara hemen luzatuko. Baina eskuartean dugun gaiarekin loturiko hainbat elementu ekarriko ditugu mahaira.


Euskararen egoera soziolinguistikoa edo bizindar etnolinguistikoa alda-gaiak pisu handia dauka, alegia, eragin handia dauka etorri berrien zein harreragileen pertzepzioetan, jarreretan eta portaeretan ere. Migratzaileen kasuan, bereziki, horrek markatzen du hizkuntzak eguneroko bizitzan duen pisua eta hizkuntza ikasketek nolako motibazioak -integratzaileak zein instrumentalak- sortzen diren.

Kasu batzuetan, bereziki euskarak pisu gutxi duen eremuetan, etorri berriek ia ez dute euskararen berri: “Ellos [migratzaileak Iparraldean] el euskara no lo conocen, no saben ni que existe”. [A4·I·Er]. Beste batzuetan, informazio okerra dute edo ikuspegi estereotipatua: “el euskara lo hablan casi más en familia aquí, no?” [AE1·N·Er].

Harreragileen kasuan, gehienek euskararen inguruko jarrera positiboa adierazi arren, batzuetan beraien portaera eta jokaera praktikoa, euskararen bizindar etnolinguistikoaekin loturik agertzen zaigu. Hain zuzen ere, batzuek halako portaera pasibo edo negatiboak adierazten dute: “El sólo hecho de estar acá ya se les complica [...] entonces para no complicarles, les digo, comienza con esto [A eredua]”. [AE1·N·Er].

Migratzaile batzuek gurean dagoen gatazka linguistikoa ikusten dute eta, euskara erabiltzeko animatu direnen artean, baten batek gatazka bere azalean ere bizi izan du: “fui a la frutería y pedí en euskara [...]”, ‘que a mí no me hables, que soy de Valladolid’. [...] o sea, que no puedes andar adivinando”. [AE7·G·Eu].

Bestetik, euskarak pisu handia duen eremu demolinguistikoaetan, hizkuntza gatazkarako elementu berriak ere agertu dira:



hermes



hermes



“Si todos los carteles se emiten en euskera [...] pues yo que no entiendo euskera no sé lo que iba a pasar en Markina, y no puedo participar. [...] para que nosotros podamos enterarnos también, tienes que hacer una pequeña voluntad de hacer los carteles en euskera en gran formato, y al menos en pequeño formato en castellano para que nosotros lo entendamos”. [AE2·B·Eu].

Beste maila batean, testuinguru soziolinguistikoaz ari garenean, aniztasun linguistiko exogenoa ere hor koka genezake.

Migratzaileen profil etnokultural eta etnolinguistikoa oso anitza da. Batzuk, jatorrian gutxiagotutako hizkuntzaren baten hiztunak dira (kitxuera, guaraniera, amazigh eta abar). Gurean, ikuspuntu soziolinguistikoa euskararen egoeraren kudeaketari loturik dago, bereziki. Aniztasun etnolinguistiko exogeno horren kudeaketa, Soziolinguistikaren ikuspuntutik ere oso interesgarria da.

Jatorrizko hizkuntzaren transmisioan eta erreprodukzioan, familiatik kanpo ere, lan handia egiten ari dira gurean bizi diren komunitate batzuek. Errumaniako eta Bulgariako komunitateak modu egituratu batean -eskolak eta ikastaroak-lanean ari dira seme-alabek haien kultura eta hizkuntza jaso dezaten. Errumaniera eta bulgariaren pareko dinamika ikusten ahal dugu arabierarekin, elkarte eta komunitate islamikoen eremuan.

Guaraniera eta kitxueraren kasuan, erreprodukzioa maila informalean ematen da, baina egoera sendoa sumatu dugu komunitate horien harreman-sareetan. Hizkuntzak indartsu agertzen dira, jatorrizko estatu-nazioetan gutxiagotutako hizkuntzak izan arren: “entre paraguayos nunca hablamos en español, siempre en guaraní. [...] tengo otro hijo [...] que en Paraguay hablaba sólo castellano [...] y acá tuvo que adaptarse a hablar en guaraní, aquí en España”. [AE4·A·Er].

Senegalgo jatorria dutenen artean ildo bereko kasuren bat ikusi dugu: jatorrian bizi izandako hierarkiarekiko haustura. Senegalen frantsesa dute hizkuntza ofiziala eta wolofera nagusitutako hizkuntza egoeran dago. Horietaz gain, gutxiagotutako egoeran badira beste bost hizkuntza: diolera, malinkera, pularrera, sere-rera eta sonikera. Batzuek, migrazioan, jatorrizko hizkuntzen transmisioari eusten dioten bitartean, ez diote eusten nagusitutako hizkuntzen transmisioari: “tengo un amigo que es serer, la mujer es diola y el hijo ha nacido aquí. El hijo habla diola, habla serer, y habla euskera (...). Wolof un poco (...)”. [AE2·B·Eu].

Gurean euskararekin gertatzen den bezala, komunitate horietan kezka dute haien hizkuntzen transmisioarekin eta sozializazioarekin: “cuando nosotros estamos reunidos y los niños están hablando entre ellos es una pena que están hablando en castellano. [...] nosotros lo que queremos es que hablen en búlgaro”. [AE5·A·Er].

HIZKUNTZAK HARRERAN

Eragileen eta hizkuntzen arteko harremana ikuspuntu ezberdinetatik azter litezke. Ahalik eta ikuspegi osatuenean jorratzeko hau lantzea funtsezkoa litzateke: eragile horiek adierazten duten jarrera zein jokaera: hemengo hizkuntzekin -bereziki euskararekin- zein migratzaileen jatorrizko hizkuntzekin. Hori guztia, bereziki, harrera programen ikuspuntutik.

Ikusi bezala harrera-eskatzailleak jatorri anitzekoak dira eta beraien jatorrizko hizkuntzak ere hamaika dira.

Hizkuntzen ikuspuntutik, hizkuntzen kudeaketak harreran bestelako bi funtzio izan ditzake. Batetik praktikoa, komunikazioa bermatzeko. Bestetik sinbolikoa: harrera-eskatzaillearen hizkuntzei dagokionez, haiekiko errekonozimendu erakusteko, eta, hemengo egoera linguistikoari dagokionez, egoera ikustarazteko eta hemengo hizkuntzekiko -euskararekin bereziki- jarrera eta portaera positiboak lortzeko.

EUSKARAREN INGURUAN

Harrera eta euskararen arteko harremana maila ezberdinetan azter daiteke, besteak beste, ondoko hauetan. Batetik, euskara bera, hizkuntza gisa, harreraren duen erabilera komunikatiboa zein sinbolikoa. Bestetik, euskararekin loturiko informazioa. Hirugarrenik, eragileen jarrera euskararen inguruan. Azkenik eragileen jokabidea, modu praktikoan transmititzen dutenarekin eta eskaintzen ahal duten laguntzarekin.

Euskarekiko jarrera, harreraren testuinguruan, elementu edo aldagai ezberdinekin lo daiteke. Batzuk norberaren baitakoak -adierazten den iritzi/atxikimendu orokorra, hizkuntza bereganatzeko/ikasteko interesa, erabilera- eta beste batzuk -harrera-eskatzaileri zuzendutako sustapena- kanpora begirakoak edo.

Eragileek euskararen inguruan agertzen duten jarrera, oro har, positiboa dela esan liteke. Inork ez du euskararen inguruko iritzi orokor negatiborik adierazi.

Euskararen inguruko sustapena maila abstraktuan agertzen denean ere, oro har, inork ez du sustapenaren kontrako jarrerarik erakusten. Hala ere, kontraktasun eta aldektasuna *continuum* baten moduan harturik, maila ezberdinak agertzen dira, abstrakzioetik kontu zehatzetara jotzen dugun heinean.

Sustapenaren inguruko lan hau, oro har, abiapuntuzko hausnarketa dugu. Kasu batzuetan hausnarketa prozesu sakon eta/edo iraunkor batez ari gara eta bestetan, besterik gabe, gai baten edo batzuen inguruan une zehatzen batean hartutako erabakiaz. Euskalgintzako eragileen abiapuntua hein batean ezberdina da, erabakiaren zentzua eta helburua jatorri etnokulturalen gaiari heltzea izan baitzen.

Euskararen erabilera harreragileen jardueran, esan bezala, hizkuntzen kudeaketak harreraren bi funtzio izan ditzake: komunikatiboa eta sinbolikoa. Horiek aztertuko ditugu orain.

Erabilera komunikatiboari dagokionez, hizkuntzen kudeaketaren ikuspuntutik, hizkuntzen erabilera antolatzeke bi aktoreak hartu behar dira aintzat: harreragile zein harrera-eskatzailera. Biek komunikazioa emititzen eta jasotzen dute. Komunikazioa da helburua, baina lehen adierazi bezala, komunikazioan -alde linguistiko hertsiaz gain- hainbat elementu kontuan hartu behar dira. Horietako bat, testuinguru soziolinguistikoa edo joko-eremua dugu.


Jendartearen euskararen presentzia sinbolikoa -errotulazioan, esaterako- aurrera badoa ere, oraindik ez dago normalizatua hainbat eremutan. Esaterako, eragile askoren errotulazio formalean zein informalean gaztelania -edo frantsesa- Iparraldean- zen nagusi eta, kasu askotan, euskara ez zen agertzen edo ez modu orekatu batean.

Erabilera sinbolikoa ere, kasu honetan, ahozko arretan egin daitekeen erabilerekin loturik dago. Izan ere, eragile baten dinamikan nolabait protokolizatua baitago euskararen erabilera harrera-eskatzailerekin, oinarritzko hitz batzuk sartzeko: "euskarazko agurra jasotzen dute eta gehien erabiltzen ditugun adierazpen guztiak ere euskaraz helarazten dizkiegu". [E2·B·Eu].

Soziolinguistikaren esparruan belaunaldien arteko transmisioa edo jarraipena hizkuntza sozializazioaren ikuspegiarekin osatzen da, hain zuzen ere, gure egoera abiapuntu, haur kopuru handi batek euskara bereganatzen duelako eskolaren bidez eta ez soilik -edo nagusiki- gurasoengandik.

Helduen euskalduntzeaz aritzeko gure fokua hasiera pixka bat zabalduko dugu, euskara eta gaztelaniaren arteko egoera alderatzean ezberdintasun handiak ikusten dira: berariazko ikastaroak, eskolak dohainik, laguntzak.

Aipatu den bezala, irakaskuntzaren esparruan hutsune handia dago kokorturik etortzen diren migratzaileen seme-alabekin. Berez, nekez ahal dute D erduan matrikulatu (6, 7, 8 edo 13, 14 urteekin murgiltze programa batean sartu);



hermes



hermes



euskara ikasteko aukera galtzen dute irakaskuntza sistema formalean eta kasu gehienetan ez dute harremanik euskararekin (A eruedetan matrikulaturik, euskara ikasgaian ere “salbuetsirik”, batzuetan bizi diren herritik kanpo ere).

JATORRIZKO HIZKUNTZEN INGURUAN

Harrera programetan oso zaila da harrera-eskatzaille guztien hizkuntzak erabiltzea, kontuan harturik egun zerbitzu horien jasotzaileen aldetik dagoen aniztasuna.

Alabaina, jatorrizko kultura eta hizkuntzekiko jarrerak eta praktikak -erabileraz harago- bestelako jokabideetan islatzen dira. Izan ere, hizkuntza horien aitoren penaren bestelako elementu sinbolikoen bidez egin daiteke.

Hain zuzen, harreragileen jarrerak eta jokabideak aztertzeko elementu ezberdinei erreparatzen ahal diegu. Alde batetik aniztasunaren inguruko adierazpenak. Bestetik, jatorrizko hizkuntzen erabileraren kudeaketa harreran, presentziaren zein errekonozimenduaren ikuspuntuetatik. Hirugarrenik familia transmisioa-sozializazioa. Azkenik, jatorrizko hizkuntzen jabekuntza-ikasketa.

Erabilera komunikatiboari dagokionez, harrera-jasotzaileen hizkuntzak ugarriak dira: frantses, ingeles, arabiera, italiara, portugesea, wolofera, fula, lingala, barbarera, e.a.

Horietako batzuen egoera nolabait normalizatua dago eta beste batzuk jatorrian gutxiagotutasun egoeran daude.

Harrera-eskatzaileren hizkuntza profila tarteko, ahozko harreran oso egoera ezberdinak izaten dira. Batzuek nola edo hala gaztelaniaz komunikatzeko gaitasuna dute. Beste batzuek -etorri berriek, bereziki- ez dute gaitasunik gaztelaniaz, edo oso mugatua... Edozein modutan ere, aintzat hartu beharreko elementua hau da: komunikazio hizkuntzen alde praktikoa, besteak beste, harreraren kalitatearekin loturik dago. Bereziki egoerak bereziak direnean, komunikazioa bermatzea oso garrantzitsua baita.

Erabilera sinbolikoari dagokionez, ahozko arretan hizkuntza guztiak erabiltzea ezinezkoa izanik ere, aitortza ariketak egiteko aukera dago: “hablo árabe, las cuatro frases que tú puedes decir, que él se identifique...”. [AE5·A·Er].

Aitortzarako bestelako bidea harrera-eskatzaileren datuen inguruko bilketarekin lotu dugu. Izan ere, jasotzen diren datuek, nolabaiteko aitortzen adierazten dute: “¿Tú eres de Burkina Faso? ¿hablas mòoré?” “¿Y cómo sabes que en Burkina se habla mòoré?” [AE5·A·Er].

Familia transmisio-sozializazioaren esparruan, jarrera eta jokabideak bereizi ditugu.

Jarrera ezberdinak egon daitezke jatorrizko hizkuntzen transmisio-sozializazioaz. Abiapuntuzko diferentzia dugu gaiaren inguruko hausnarketa egin duten ala ez. Baina, hausnartu bai ala ez, familia transmisioa-sozializazioaren inguruko jarrera ezberdinak egon daiteke: aldekoa, kontrakoa eta neutroa edo pasiboa.

Jatorrizko hizkuntzen jabekuntza-ikasketari dagokionez, egun joerek familia transmisioa eta sozializazioa batera lantzeko joera dago, *tandem* moduan elkarrekin jorrazteko. Hortaz, jabekuntza hizkuntza ikasteko prozesuarekin lotzen dugu, familia transmisioetik kanpo ematen den ikaste prozesuarekin. Alabaina, azter daiteke hainbat praktika familia transmisioaren hutsunea betetzera datoz eta oso hurbil daude familia sozializazioaren esparruarekin edo helburuarekin.

BIBLIOGRAFIA

ZAPATA, Mario (2011). “Euskara eta immigrazioa” in *EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria*. Zarautz: Ikuspegiak, 123-132.

ZAPATA, Mario (2013). *Aniztasunaren gida = Guía de la diversidad = Guide de la diversité*, Bilbo: Gite-IPES.

ZAPATA, Mario (2017). “Administrazioz kanpoko harrera-eragileak eta hizkuntzen trataera, euskaren eremu geolinguistikoa”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 102 (2017) 11-34.



Segurtasun distantzia gorde